

Eleizatik irtenda
 Aguro plazara,
 Neskacha bat artuta
 Lasterka dantzara,
 Alkarri eldugabe
 Chukun jostatzera,
 Soñua isiltzian
 Ponchia artzera.

Mutil baliente eta
 Neskacha ederrak
 Mendi tarte orretan
 Jayotako perlak,
 Legazpi-ren erriyan
 Ondoren daudenak,
 Beti gordetzen ditu
 Bere oroipenak.

Or ikusiko dira
 Aurreku-lariyak,
 Euskal-izkribitzalle
 Ta soñujoliak,
 Ardazle, bersolari,
 Ujukalariyak,
 Abillen danarentzat
 Dauzkate sariyak.

Féstak bukatutzian
 Echera abiya
 Mendaroko opillak
 Bireko jakiya,
 Konsolatzen dutela
 Inguru guztiya,
 Bizi dedilla beti
 Gure Euskal-erriya.

JOSEFA IGNACIA AZKUNE.

SECCIÓN AMENA.

BILINCH-EN ATERALDI BAT

Buru soill edo illegabekoa zuen antzera, lagunen batek, far-egin naiean, kentzen omen dio chapela esanaz:

—¡Oi, oi, Indalezio, ire buruak gazta zirurik, moteill!

—¿Zergatik?

—Legun-leguna ta zuriya dagoelako.

—Eta ireak berriz illerri edo *kanpo santua*.

—¿Zergatik?

—Illez betea dagoelako.